

EZ HANKA EZ BURU

Gu



UXUE APAOLAZA LARREA

Bada herrialde txiki bat, basamortuz inguratua, mundu guztia-ri lezio bat eman dakiokena: ura nola kudeatu, nola berre-rabili, nola garbitu, nola lortu. Eskasiak egiten gaitu bertuoso, eskasiatik industria, eskasiatik sukaldaritza, eskasiatik herrialde txiki hau oasi egiten duten teknologiak. Ura birziklatzeko munduko instalazio handienak dituzte, irrigazio sistema egokiak, gatzgabetzeko instalazioak, airea ur bilakatzeko teknologia... Saltzeko ere badute ura, soberan, beraz, ondoan urik gabe bizi direnei (baita gainerako mundu osoari ere, Eden izeneko paradisu botilatuetan). Lehen munduko edozein herrialdek bezala, bere estrategia berdeak ditu Israelek, Mendebaldeko beste edozein herrialdek bezala, ustiatzeko hirugarren mundu bat duelako. Gertuegi, behar bada. Berdea gorri bilakatzen den muga horretan, hain zuzen.

Ez dakit non adosten den nongo plastikoa, nongo behiak, nongo kotoia edango ditudan nik. Ziur, gero eta gutxiago uzten ari naizela nire gauzak fabrikatzeko bere ura erabiltzen duen herrialdeari, gero eta gutxiago, gutxiago dagoenez. 1993an Oslon adostu genuen, denbora batez, Israelena izango zela ur partekatua (txis-teak berehala hasten dira) %80, eta palestinarrentzat %20. Beraz, legezkoa litzateke urte hauetan guztietan Israelek palestinarrek uraren %20arekin uztea: ez dute egin, noski. Gutxiago utzi diete.

Palestinarrek, guk nahi bezala, guk nahi ez bezala, hori ere geuk erabaki behar dugunez, esan dutenean “aizue, begiratu hona”, Israelek milaka hiltzeaz gain, ura moztu die (duten apurra), eta barregarria da Borrell haserre ikustea, “ura etetea nazioarteko zuzenbidearen aurka doa”. Eten hori amaitzen denean, palestinarrek jarraituko dute ura lortzeko azpiegiturak egin ezinik, egindako apurrak nola suntsitzen dizkieten ikusten, ura lapurtu dienari ura erosten... Guk jarraituko dugu ura edukitzen, jarraituko dugu Israelgo kontu berdeetan inbertitzen, jarraituko dugu europar, mugak urrun, berdeari gorria ikusi gabe, eta beldurra emango digu boikot esateak, genozidio... Beldurra emango digu esateak, esan behar dena. Norbait soberan dagoela. Eta Israel bada, agian... ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

“GENOZIDIO” HITZA 1944EAN
ERABILI ZEN LEHENBIZIKOZ.

RAPHAEL LEMKIN ABOKATU
JUDUAK ASMATU OMEN ZUEN.



TEKNOLOGIA

Gerraren automatizazioa



DIANA FRANCO

Dugun munduan, gure etxeko sofán eserita, dena egin dezakegula dirudi. Teklatuarekin, mugitu barik gailuekin elikatzen den saretik ia edozein gauza gure eskura dagoela iruditzen zaigu.

Gauzen internetaren kontzeptua entzun duzu noizbait? Gauzak (makinak) euren artean harremanetan jartzen direnean ematen den sarea litzateke. Internet eredu asko dago, eta internet gerra eraginkorragoa egiteko irudikatzen duenik ere badago. Gerrarako sortutako internet horretan, egongo liratekeen gauzak dira tankeak, droiak, torpedoak, eskuko armak, sentsoreak, minak...

Gerra eredu hori ikusten ari gara Gazan, Israelek aukera du aspalditik sortzen aritu den teknologia horiek esperimenta-

tzeko. Adimen artifizialarekin elikaturiko gerra gailuen interneta sortzen ari da, eta aurrez aurreko liskarrak bortitzagoak diren eredu bilakatu du gerra, aldean arteko asimetria handituz.

Gazako herria harrapatuta dago. Hamasek gerra honetan izan duen teknologiarik eraginkorrena lurpeko tunel sarea dela dirudi. Indarrean sustaturiko teknologiak botere harremanetan duen eragina handia da, zer beste botere dugu gizakiok horri aurre egiteko? Zer ikasi behar dugu gatazka honetatik? ●